



▶ 22 Enero, 2016

Gorrotoaren aurkako lana, sarean hobeto

Administrazioen eskutik, eta baita giza eskubideen arloko elkarteek sustatuta ere, martxan ari dira gorroto delituen eta horien aldeko diskurtsoen aurkako hainbat sare

Arantxa Iraola

«Gure sarean daude hainbat pertsona eta elkarte antena moduan lan egiten dutenak; antena moduan, gorroto delituak atzemateko». Gerar Karrerek hartu du hitza, xenofobiaren aurka antolatutako Berdin sareko arduradunak. SOS Arrazakeriak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eratutako egitasmo bat da, Oiarzualdean antolatua –Errenteria, Lezo, Oiarzun eta Pasaia batzen ditu, Gipuzkoan–; garrantzi handia eman diote sarean batu diren eragileen «trebakuntzari». Etorकिनen kontrako gorroto delituak eta horiek hauspotzeko usu erabiltzen diren diskurtsoak zer diren jakitea da xedea: errepara diezaieten. «Jo dugu instituzioetara; udaletxetara bereziki: gizarte zerbitzueta eta udaltzaingotara. Izan ere, horiek dira etorkinekin harreman handiena izaten dutenak. Errenterian, esaterako, ikastaro bat egin dugu udaltzainekin eta gizarte zerbitzueta kideekin».

Etorकिनen elkarretea ere jo dute: «Ahaldundu egin nahi ditu-



Bazterkeria zeharkakoa da usu, demostratzen zaila. Baina, gutxienez ere, kontuan hartu nahi ditugu susmo horiek»

Gerar Karrere
Berdin sareko arduraduna

«Together programaren bidez lortu nahi duguna da gizarte zibila eta Polizia trebatzea eta gaitzea gaiaren inguruan»

Edna Gimenez Suarez
Gipuzkoako SOS Arrazakeria

gu; eskubideak dituztela esan nahi diegu, erabili egin behar dituztela, pasatzen utzi gabe». Sei hilabete daramatzate lanean, eta egitasmoarekin segitu nahi dute; beste eskualde batzuetara eramatea ere

buruan dute. Sistema zabalago baten barruan ari dira; izan ere, Eusko Jaurlaritzak martxan du Eraberean sare, gorroto delitu klase ororen kontra egiten saiatzeko –ez xenofoboaren kontra bakarrik–.

«Ikusezinak» dira usu gorroto delituak, salatzen ez direlako, edo estalita geratzen direlako: aitzakia artean. Hori da, Karrereren aburuz, arazo nagusietarikoa. «Askotan, esaterako, gertatzen da etorkinek arazoak izatea etxeak alokatzeko, baina inoiz gutxitan esaten diete ez dietela etxerik alokatu nahi, bada, adibidez, marokorak direlako; alokatuta dagoela esaten diete... Bazterkeria zeharkakoa da usu, demostratzen zaila. Baina guk, gutxienez ere, kontuan hartu nahi ditugu susmo horiek: jaso egin nahi ditugu». Horretan ari dira. «Erroka nagusia da dinamika bat sortzea gaiaren inguruan, tentsio bat mantentzea».

Europa osoko sare

Helburu horri atxikita dihardu Gipuzkoako SOS Arrazakeriak Together sarean ere. Euskal Herrian bezalaxe, Katalunian, Zirenen, Txekian eta Italian dago egituratuta. Trebakuntza du xedeetako bat: «Lortu nahi duguna da gizarte zibila eta Polizia trebatzea eta gaitzea gaiaren inguruan», azaldu du Gipuzkoako SOS Arrazakeriako ordezkari Edna Gimenez Suarezek. Asmo horrekin, trebakuntza saio bat egin zuten Arkautin –ertzainen akademiaren– 45 polizia-bururekin; Berdinekin Errenterian udaltzainak trebatzeko egindako

saioan parte hartu zuten, eta Donostian udaltzainekin beste antzeko bat egin zuten. Ikerketa bat ere hasi dute, gaur egun gorroto delituei «sistematikoki» erreparatzeko dauden bideen inguruan.



Javier Saez del Alamo, Errenterian eskaini zuen tailerlean. JON URBE / ARGAZKI PRESS

«Salaketetan usu ez du jartzen gorroto delituak direnik; epaietan ere ez ondorioz»

Javier Saez del Alamo
Soziologoa

A.I.

Gizartearen bazterretan egoten dira, gehienetan, gorroto diskurtsoetan ahotan hartzen diren kolektiboak; baita delituen biktimak ere. Ijitoak, esaterako, usu egon dira talde horietan sartuta. Ijitoen Idazkaritza elkartearen dihardu Javier Saez del Alamo. Soziologoa ezaguna da, gay eta lesbienek jasaten duten bazterkeriaren inguruan ere lan ugari egingandakoa. Errenterian izan zen abenduan, lege aldetik delitu horien aurka zer egin daitekeen azaltzeko tailer bat ematen.

Espainiako legeetan ondo zehaztuta al dago zer izaten diren gorroto delituak?

Egun dagoen agiririk argiena, seguru asko, Espainiako Gobernuaren Barne Ministerioak gaiaren inguruan 2014an egindako protokoloa da. Ezaugarri jakin batzuk dituzten pertsonen kontra egiten diren delituak direla zehazten da: sexu joera, arraza edo erlijio jakin baten jarraitzailea izateagatik norbaiten kontra egindako deli-

tuak, hain justu. Tamalez, Espainian alor horretan esperientzia urria egon da orain arte, eta atzerapena handia da Europako beste hainbat herrialderekin alderatuta. Epaile eta fiskalek gaiak ikuspegi horrekin lantzeko ohitura oso urria dute, eta, ondorioz, sententzia gutxi daude.

Espainiako Zigor Kodearen azken erreforman delitu horien kontra behar adinako irmotasunarekin egin ez izana aukera galdutzat duzue, ezta?

Hala da. Izan ere, aipatzen dira, baina ez dago gai horren inguruko atal multzorik. Horregatik, orain arloan dihardugunon xedea da delitu horien inguruko lege integral bat, horren bidez neurri zehatzak ezartzeko. Beste herrialde batzuetan badira halakoak.

Halakorik gabe, ikusten ere zailak dira usu delitu mota horiek...

Hori da arazoa: ikusezinak dira. Salaketetan usu ez du jartzen gorroto delituak direnik; ondorioz,

«Sare sozialetan gauza izugarriak idazten dira: ijitoak hil behar direla eta horrelakoak. Ez da horien aurka egiten»

epaietan ere ez. Horrek dakar jurisperentziarik ez egotea, eta horrelakorik egiteko ohiturarik ere ez. Benetako gorpil zoroa da. Ijitoen kontra edo LGTB kolektiboko pertsonen kontra egindako delituetan sarri ikusten da hori, eta baita etxerik gabeko pertsonen kontrako delituetan ere.

Ikusezintasun horrek gaiari buruz modu hutsalean eta desegokian mintzatzea al dakar?

Halaxe da. Eta bi zentzutan ikusten da hori. Batetik, zigorgabetasuna sentitzen dute askotan gorroto delituak egiten dituzten pertsonak, eta horrek dakar usu gaia hutsaltzea. Bestetik, oso argi ikusten da hori gorroto diskurtsoetan ere; sare sozialetan, esaterako, gauza izugarriak idazten dira askotan; ijitoak hil egin behar direla eta horrelakoak. Badira tankera horretako milaka mezu, baina ez da horien aurka egiten. Adierazpen askatasuna dela eta, hor uzten dira. Beste hainbat herrialdetan, ordea, oso bestelako jarrera izaten da horrelako diskurtsoen inguruan. Emakumeen inguruan ere sarri askotan oso mezu gogorrak idazten dira, bortxaz beterikoak. Baina horien kontra egiteko bide landurik ez dago oraindik ere Espainian.

Gorroto delituen kontrako lege integral batek urrun dirudi...

Bai, Espainiako Barne Ministerioak delitu horien inguruko protokoloa egitea, behintzat, aurrerapauso bat izan da. Sumatu da azkenaldian beste jarrera bat. Baina egia da, oro har, nahi baino motelago doala dena; nolabaiteko utzirik sentitzen da, gainera, gaiaren inguruan. Alorrean dihardugun elkarte guztiak legealdi berrian zer gertatuko den zain gaude, eta alderdi guztietan argi utzi diegu zein den gure helburua. Neurri zehatzak nahi ditugu, eta aurrekontuak horiek garatzeko.